

2022ko URRIAREN 20ko ERREKTOREAREN EBZPENAREN BIZEZ DEITUTAKO 2019, 2020, 2021 ETA 2022ko LAN ESKAINTZA PUBLIKOARI DAGOKION BARNE PROMOZIO MODALITATEKO OHIKO PROZEDURAREN BIDEZ KARRERAKO FUNTZIONARIO IZATEKO HAUTAKETA PROZESUKO EPAIMAHAIAREN AKORDIOA.

LANPOSTUAZ JABETZEKO ASMOA ADIERAZTEKO EPEA IREKITZEA.

2022ko urriaren 20koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen ebazpenaren bidez, administrazio eta zerbitzuetako funtzionario eta lan kontratuko langileentzako 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko enplegu publikoaren eskaintzei dagozkien oinarri orokorrak bai eta funtzionarioen barne-sustapenekoak ere argitaratu ziren.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2022ko urriaren 20ko EBAZPENAREN bidez, deialdi espezifikoetan barne-promozioaren bidez sartzeko hautaketa-prozedura arautu duten oinarri espezifikoak argitaratzeko agindu zen.

Barne-promozioko modalitateko karrerako funtzionario izateko ohiko prozesuko epaimahaiak hartutako 2024ko uztailaren 19ko erabaki banaren bidez, berariazko deialdietako hautatutako pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen behin-behineko zerrenda onartu eta argitaratu zuen.

Funtzionarioen barne-promozioko 9.1 oinarri orokorrak honako hau ezartzen du:

“Epaimahaiak ezin izango ditu deialdian ateratako plazak baino hautagai gehiago aukeratu, eta muga hori gainditzen duten proposamenak erabat deusezak izango dira.

Hala ere, gerta liteke aukeratutako hautagairen batek uko egitea plazari, edo aurkezten duen dokumentazioan agerian geratzea ez dituela eskatutako betekizunak betetzen, edo ezusteko arrazoiengatik plaza ezin betetzea. Hori dela eta, epaimahaiak proposatutako izendapenen kopurua deialdian eskaintako plazen kopuru bera denean, plaza guztiak beteko direla ziurtatzeko, plaza jabetu aurretik organo eskudunak epaimahaiari eskatu ahal izango dio proposatu dituen hautagaien ondoren geratu diren pertsonen zerrenda emateko; hartara, hala behar izanez gero, horiek ordezkatzeko dituzten hasieran proposatutako hautagaiak.”

Aipatutako 9.1 oinarri orokorrean ezarritakoa betetzen laguntzeko, beharrezkotzat jotzen da bost egun balioduneko epea ezartzea, erabaki hau argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, behin-behineko esleipendunek lanpostuaz jabetzeko asmoa adierazi beharko dute, enpleguaren atarian eskura jartzen zaien formularioa betez. Formulario horretan adierazitako asmoa loteslea izango da.

Deialdi espezifiko guztietan epe hori amaituta, eta 9.2 oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera, hautatutako pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen behin betiko zerrenda egin behar da.

Horregatik guztiagatik, epaimahai honek

ERABAKI DU:

LEHENENGOA.– Barne-promozioko modalitatean karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuko deialdi espezifiko bakoitzean, hautatutako pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen behin-behineko zerrendan agertzen diren pertsonen eskura formulario bat jartzea lan-eskaintzen atarian, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bost egun balioduneko epean lanpostuaz jabetzeko asmoa adierazi dezaten, hura beteta. Formulario horretan adierazitako asmoa loteslea izango da.

BIGARRENA.– Horretarako gaitutako UPV/EHUko enplegu-atarian iragarkia argitaratzea (<https://www.ehu.eus/es/web/azp/barne-promozioa-22>); gaindituen azken eta behin betiko kalifikazioaren zerrenda hori kontsultatzeko.

Epaimahaiko idazkaria